



*Idiazabalgo Udala*



**COVID-19A DELA ETA HAUR ETA NERABEEN AISIA HEZITZAILEKO JARDUERA EGOKITZEKO PLANA.**

Dokumentu honek Idiazabalgo Udalak 2020-21 ikasturtean Xapolarunbatak aisia hezitzaileko jarduera garatzeko egin duen egokitzapen-plana jasotzen du. Dokumentuaren hartzaileak ekintza horietako partehartzaileak eta beren legezko tutoreak dira. Jardueraren datuak honako hauek dira:

Lekua: Idiazabal

Data: 2020-2021ko larunbatak.

Ikasturtea: 2020-2021

**COVID-19A DELA-ETA GAZTEEN AISIA HEZITZAILEKO JARDUERA EGOKITZEKO PLANA**

- Egokitzapen-plan bat diseinatuko da, jarraian adierazten diren alderdiak kontuan hartuko dituena.

**NEURRIAK**

**1. Kutsapenaren kontrola eta prebentzioa**

- Parte-hartzaileek eta beren legezko tutoreek beren gain hartuko dute COVID19aren aurrean duten egoeraren erantzukizuna; hala, Xapolarunbatak jardueran parte hartu duen haietakoren batek COVID-19arekin lotutako sintomak baditu, ez da Xapolarunbatak zerbitzura joango eta arduradunarekin harremanetan jarriko da (Udal teknikaria, koordinatzailea, hezitzailea, etab.), hau da, 943187100 / 722674473 telefono-zenbakira deituz edo [xapobixiae@gmail.com](mailto:xapobixiae@gmail.com) / [berdintasuna@idiazabal.eus](mailto:berdintasuna@idiazabal.eus) helbide elektronikora idatziz.
- Xapolarunbatak jardueraren arduradunak bertako segurtasunaz arduratuko dira. Instalazioen sarreran osasun-adierazpena jarriko dute eta agindutako segurtasun-protokolo eta neurri guztiak beteko dituzte, besteak beste:
  1. Parte-hartzaile bakoitzaren erantzukizunpeko adierazpena izatea, arrisku talde batekoa ez dela eta bere bizikideen artean arrisku-talde bateko inor ez dagoela ziurtatuz.
  2. Parte-hartzaile bakoitzaren konpromisoa izatea COVID-19rekin lotutako sintomatologia badu ez duela Xapolarunbatak jardueran parte hartuko eta arduradunarekin (Udal teknikaria, koordinatzailea, hezitzailea, etab.)



## *Idiazabalgo Udala*



harremanetan jarriko dela informatzeko (mugikorraren edo beste bitartekoren baten bidez).

3. Parte-hartzaile bakoitzaren egiaztagiria izatea, derrigorrezko higie eta prebentzio-neurri pertsonalen dokumentua onartuz.
  4. Parte-hartzaile bakoitzak sinatutako baimen informatua izatea.
  5. Egoera sanitarioengatik, pertsonalengatik edo sozioekonomikoengatik arriskuan dauden pertsonak parte hartzeko bete behar diren baldintzei buruzko informazioa emana izatea.
- Jarduera egiten den instalazioan, kartelak eta informazio-orriak egongo dira, segurtasun-portaera eta distantzia egokiak, higie-neurriak eta abar gogorarazteko.
  - Jardueraren hasieran, higienari eta portaerari buruzko prebentzio-neurriak gogorazteko saioak egingo dira, adin bakoitzera egokituta.
  - Xapobixik duen protokoloan aplikatuko da zerbitzuan.

### 2. Derrigorrezko higie- eta prebentzio-neurri pertsonalak betetzea

- Erabiltzaileek honako hauek izango dituzte eskura instalazioaren sarreran eta komunetan: ura, xaboa eta eskuak lehortzeko papera edota gel hidroalkoholikoak.
- Maskara nahitaez erabili beharko da, nahiz eta haur eta nerabeak 1,5 metroko pertsonen arteko distantzia gorde. 6 urtera arte, maskara ez da nahitaezkoa izango, nahiz eta, posible den kasuetan, adin horretatik behera ere erabiltzea gomendatzen den.
- Erabiltzaile bakoitzak bere maskara eraman behar duela alde batera utzita, Xapolarunbatak erreserbako maskarak egongo dira, norberarena galdu, hautsi edo antzeko zerbait gertatuz gero ordeztu ahal izateko.
- Haur eta nerabeen eskura ura, xaboa eta eskuak lehortzeko papera edota gel hidroalkoholikoak egongo dira. Gel hidroalkoholikoak sarreran eta jarduera espazioetan egongo dira.

### 3. Arrisku-taldeek eta sozialki desabantailak dituztenen babesa

- Xapolarunbatak jardueran parte hartu aurretik, arduradunek arrisku taldeetako kideen (diabetesa, gaixotasun kardiobaskularra, hipertentsioa, biriketako gaixotasun kronikoa, immunoeskasia, tratamendu aktiboan dagoen minbizia, haurdun dauden emakumeak, 60 urtetik gorakoak) edo halakoekin bizi direnen parte-hartzeari buruzko balorazioa egingo dute.



## *Idiazabalgo Udala*



- Arreta berezia eskainiko zaie parte hartzeko aukerak urrituta dituztenei (arrisku taldeak, gizarte-desabantailako egoeran daudenak, dibertsitate funtzionala edo intelektuala duten pertsonak), eta laguntza-hezitzaileak edo berariazko hezitzaileak jarriko zaizkie.

### 4. Jardueretarako izen-ematea

- Izen-ematea Udal liburutegian edo on line egingo da, [www.idiazabal.eus](http://www.idiazabal.eus) webgunearen bitartez.. Beharrezkoa den dokumentazioa webgune horretara igoko da.

### 5. Aurrez aurreko jarduerak egokitzea eta berrantolatzea

- Aire zabaleko jarduerak lehenetsiko dira.
- Parte-hartzaileen sarrera mailaka egingo da, pilaketak saihesteko. Jardueran parte hartzen duen azpitalde bakoitzak sartzeko eta ateratzeko ordutegi espezifikoak izango du, gainerako azpitaldeetatik bereizita. Gutxienez bost minutuko aldea egongo da azpitalde bat sartzen edo irteten denetik bestea sartu edo irten arte.
- Jarduerak egiteko orduan, lehenetsia eman zaie prebentzioko eta pertsonen arteko gizarte-distantziako neurriak betetzea ahalbidetzen duten jarduerari. Etengabeko kontaktu fisikoa eskatzen duten jarduerak egitea saihestuko da.
- Jarduera 15 parte-hartzaileko taldeetan egingo da, hezitzaile erreferente batekin, eta gainerako taldeak autonomoak izango dira.
- Haurren aisia hezitzaileko jarduerak parte-hartzaileen arteko harreman fisikoa nahitaez eskatzen duten arren, hau mugatu egingo da. Horregatik, ahal den neurrian, pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun-distantzia errespetatuko da; maskarak erabiliko dira osasun-agintarien indarreko gomendioek ezarritako baldintzetan.
- Jardueraren ardura duen erakundea udalerriko beste agente baliokide batzuekin koordinatuko da, pilaketak saihesteko, bai eta agintari eskudunekin ere, espazio publikoak modu ordenatu eta seguruan erabiltzeko.

### 6. Hezitzaileak, jarduera-taldearen arduradun gisa

- Talde bakoitzak bi hezitzaile arduradun ditu esleituta, eta bera izango da erreferentea. Arduradun horrek distantzia-neurriak errespetatzen direla zainduko du, eta pilaketak saihesten saiatuko da. Osasun-portaerak eta materialak kontrolatuko ditu eta, lehen esan bezala, maskarak banatuko dizkie behar dituzten partehartzaileei.



## *Idiazabalgo Udala*



- Hezitzaileak prestakuntza espezifiko eta eguneratua jaso dute COVID-19ari buruz, ezartzen ari diren neurri eta protokolo espezifikoak buruz eta laneko arriskuen prebentzioari buruz, dagokion osasun-agintaritzak ezarritakoarekin bat etorriz.
- Hezitzaileak ezin izan badute lehen aipatutako prestakuntzan parte hartu, gure erakundeak konpromisoa hartzen du osasun-prestakuntza hori jardueran zehar emateko.

### 7. Jarduera garatzeko baldintzak

1. Xapolarunbatak jardueraren aurreko informazioa eta komunikazioa.

Erakundeak informazio hau emango die parte-hartzaileei eta gurasoei edo legezko tutoreei:

- Xapolarunbatak jarduera egiten den bitartean higie eta segurtasun arloan hartuko diren prebentzio-neurrien dokumentu argigarria.
- Xapolarunbatak jarduera COVID-19ra egokitzeko dokumentu bat
- Kutsatzeko arriskua edo kutsatze positiboa dagoenerako prebentzioko eta jarduteko protokoloa zehaztua dago eta Idiazabalgo web orrian dago.
- Parte hartzeko baldintzak, informazioa emateko betebeharra eta baimen informatua onartzeko dokumentu bat sinatu beharko da.

2. Xapolarunbatak **Jarduera garatzen den** bitartean:

- Jardueraren arduradunek segurtasuna zainduko dute, instalazioetan sartzean osasun-adierazpena eginez eta ezarritako segurtasun-protokolo eta arau guztiak behar bezala betez.
- Hezitzaileak ezarri diren prebentzio-neurriak gogoratuko ditu, eta gainerakoen onerako eta segurtasunerako bete daitezela eskatuko du (gainazalak ez ukitzea, segurtasun-distantzia mantentzea, maskara erabiltzea, eskuak maiz garbitzea, etab.); eta instalazioak nola erabili ere adieraziko du (adibidez, gelak, komunak... hala badagokio).
- Hezitzaileak taldeari jakinaraziko dio nola egingo den jarduera, bisita edo ibilbidea, bai eta aplikatzen diren arauak edota izan daitezkeen murrizketak ere.
- Kontaktua fisikoa eskatzen duten agurtzeko moduak saihestuko dira.
- Hezitzaileak portaerak kontrolatuko ditu eta maskarak banatuko ditu, osasun agintarien indarreko gomendioek ezarritako baldintzetan.



## *Idiazabalgo Udala*



- Materiala ez da partekatuko talde parte-hartzaileen artean, ezta hezitzaileekin ere.
- Garraio pribatua erabiltzen bada, agintari eskudunek emandako neurriak beteko dira.

### 3. Jarduera amaitzean

- Erabilitako babes-materialak (maskarak), erabilera bakarrekoak baldin badira, behar bezala botako dira.
- Hala badagokio, autobusera edo ibilgailura modu ordenatuan igoko da, segurtasun neurriak uneoro errespetatuz.
- Harreman pertsonala ahalik eta gehien murriztuko da jardueraren osteko kudeaketetan, komunikazio telematikoak sustatuz.

## 8. Parte-hartzaile, hezitzaile eta profesionalentzako oinarrizko segurtasun eta higiene ekipamenduak

Jardueraren ardura duen erakundeak bere instalazioetan, ireki aurretik, behar beste oinarrizko higiene-ekipamendu hornitzen direla ziurtatuko du, erabiltzaileek eta langileek erabil ditzaten.

### 1. Norbanakoen higiene-gomendioak jarraitu ahal izateko beharrezkoak

diren produktuak:

- Hezitzaileentzako eta parte-hartzaileentzako maskarak. Hezitzaileak eta partehartzaileek maskara garbiak izan beharko dituzte, osasun-agintariek ezarritako baldintzetan. Parte-hartzaileek ezin badute hornidura hori ziurtatu, erakundeak hartu beharko du bere gain.
- Komunetan, ura (epela bada hobe) eta xaboia.
- Soluzio hidroalkoholikoa jarduera-espazioetan eta leku estrategikoetan, publikoetan, eta instalazioen sarreran.
- Erabili eta botatzeko zapiak espazio komunetan eta jarduera-guneetan.
- Langileentzako hesi-maskarak eta NBE, bereziki eskularruak eta maskarak, esposizio eta kutsapeneko arrisku-mailaren arabera, osasun-agintariek ezarritako baldintzetan.
- Eguneroko higienizazio indartuko da lanei ekin ahal izateko garbiketa-materiala (besteak beste, lixiba eta Osasun Ministerioak desinfektatzeko baimendutako produktuak).



## *Idiazabalgo Udala*



### 2. Erreserbako materialak:

- Xapobixik erabilera orokorreko ordezeko maskarak izan beharko ditu parte-hartzaileentzat eta haien hezitzaileentzat. Baita garbiketako langileentzako eta kutsatze-kasuetarako agindutako maskarak eta NBEak ere. Hori guztia osasun agintariak ezarritako baldintzetan.
- Xapolaruntak garbiketa-materialaren hornidura nahikoa izan beharko du, egunero higienizazio indartuko lanak egin ahal izateko.

## 9. Langileentzako neurri espezifikoak

### 1. Hezitzaile boluntarioentzako neurriak

- [https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCovChina/documentos/Recomendaciones\\_VOLUNTARIADO.pdf](https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCovChina/documentos/Recomendaciones_VOLUNTARIADO.pdf)

### 2. Praktiketara dauden hezitzaileentzat neurriak

- Praktiketako hezitzaileek parte hartu ahal izango dute, nahiz eta horrek talde bateko parte-hartzaileen kopurua handitzea ekarri, betiere indarrean dagoen araudia betez.

### 3. Osasun-baldintza arriskutsuak dituzten profesionalentzako neurriak

- <https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/PrevencionRRL COVID-19.pdf>